

KULTURA DEMOKRATIKOA ETA ERALDATZAILEA

Arizmendiarrietak kultura eta hezkuntza lotzen zitueneta pertsona baten eta herri baten oinarriak zirela esaten zuen. Gizartea eraldatzeko eta demokratizatzeko eta pertsona askatzeko kultura eta hezkuntza guztiengan zabaltzea behar-beharrezkoa zela zioen.

Jakintza boterea da eta boterea demokratizatzeko alde aurretik jakintza sozializatu beharra dago. Ez dugu ezer egiten eskubideak aldarrikatuta gero eskubideak onartu dizkiegun gizakiak beren burua administratzeko gai ez badira, zerbait egin ahal izateko ezinbesteko diren gutxi batzuegana jotzea baino ez badute. p193

Beharrezkoa da aberastasuna berriz banatzea, baina are beharrezkoagoa da kulturaren sozializazioa, lanaren benetako humanizazioan pentsatu ahal izateko. p204

Kulturaren sozializazioaren ondoren ondasunen sozializazioa dator ezinbestez, baita boterearena ere; esango genuke herri baten demokratizaziorako eta aurrerapen ekonomiko eta sozialerako alde aurretik bete beharreko baldintza dela. p186

Ez dezagun ahaztu burgesiak aristokrazia gainditu eta aristokraziaren lekua hartu zuela kultura nagusiago eskuratu zuenean; beraz, proletalgora bere nagusitasun sozialari ekiteko baldintzetan egongo da gaitasun eta prestakuntza tekniko eta kulturalarengatik burgesiaren lekua hartu edo ordezkatzeko gai denean. p187

Jakintza sozializatu egin behar da, boterea demokratizatzeko. p185

Kultura, klase baten pribilegio gisa, herriek aurrera egiteko duten eragozpen handienetako bat da. Gizartearen eta ekonomiaren aurkako morrontza dakar denbora berarekiko, eta arazo handirik gabe horretaz konturatzen diren gizakiak eta herriak sozializatzen saiatzen dira kosta ahala kosta. Kulturaren sozializazioa, herria diskriminaziorik gabe kulturara iristea, denoi hobera egiteko dituzten gaitasunak ahalik eta gehien garatzeko aukera ematea, funtsezko postulatu da gure egunerako mugimendu sozial ororentzat. Dagokion babes ekonomikorik gabe eta aldi berean kulturaren babes gabe egiten diren giza eskubideen aldarrikapenak amore emate laburrak dira, jendeari begira egindakoak eta ondorio handiagorik sortuko ez dituztenak. p199